



Elgetako udala

Astelehenetik ostiralera 8:00-13:00

943 76 80 22 udala@elgeta.eus
www.elgeta.eus



Astelehenetik ostegunera 16:30-20:00
Ostiral eta jai bezperak 14:30-17:30

943788012 – 688729603 (WhatsApp/Telegram)
elgetakoliburutegia@elgeta.eus

ERABILERA ANITZEKO GELA

Herritarrentzat erabilera aukera desberdinak eskaintzen dituen udalaren gunea da.

Erabilera aukerak:

- KzGunea
- Ikasketa/lan indibidualerako gela
- Talde lanerako gela
- Bilera/informazio saioetarako gela

Kultur etxeko bigarren solariuan dago gela. Bertan, 8 mahai bikoitz, entxufeak, wifia eta arbel bat daude. Horrez gain, KzGuneko bi ordenagailu daude erabilgarri (erabiltzaile pasahitza dutenentzat).

IKASKETA/LAN INDIBIDUALERAKO GELA

Gela beste erabileraren baterako erreserbatuta ez dagoenean ikasketa/lan indibidualak egiteko erabili daiteke. <https://labur.eus/erabilera-anitzeko-gela> helbidean ikusi daiteke gela noiz dagoen libre eta noiz ez.

Bakarkako ikastetarako nahiz lanerako gunea da

Ordutegi librea du, norbere beharren arabera moldatzeko aukerarekin

8 pertsonak batera erabiltzeko aukera dago, bakoitzak mahai bat erabilita (Mahaiak elkabanatuta bikoitza)

Erabilera arauak

- 16 urtetik gorako herritarrek erabili dezakete
- Ezin da erreserbarik egin
- Baimen eskaera pertsonala da, eskatzailearentzat soilik balio du
- Gela liburutegiaren irekiera orduetan erabiltzeko, bertan eskatu daiteke gela erabiltzeko baimena eta gela ireki eta ixteko
- Liburutegiko irekiera ordutegitik kanpo erabili ahal izateko eskaera orria bete eta udaletxean edo liburutegian aurkeztu behar da
 - Erabilera baimenaren onarpenarekin batera beheko gordailutik giltza eskuratzeko klabea emango da
 - Beheko atea giltzaz istea gomendatzen da
 - Gordailuan bigarren giltza joko bat egongo da norbanako bat baino gehiagok une berean gela erabili ahal izateko
 - Bigarren jokoa erabiltzen duen norbanakoak atea ireki ondoren giltza berriz gordailuan utzi beharko du
 - Atea itxita eduki nahi izanez gero lehenengo norbanakoak jaso duen giltza erabili beharko da (bigarrena barrutik erabili behar ez izateko)
 - Giltza eskuratzeko klabea ezin da beste inorekin partekatu
 - Klabea aldatuz gero erabilera baimena dutenei klabe berria jakinaraziko zaie
- Bakarka ikasteta nahiz lanerako gunea denez ixiltasuna mantendu behar da
- Mugikorrarekin hitz egiteko kanpora irten behar da
- Ezin da erre, ez jan. Alkoholdun edaririk ere ezin da edan
- Gela aurkitu den bezala utzi beharko da irteterakoan
- Gunea eta ingurukuak errespetatu behar dira
- Erabilera gauzatzeko arauok onartzen direla baieztatzeko inprimakia sinatu beharko da

TALDE LANERAKO GELA

Gela beste erabileraren baterako erreserbatuta ez dagoenean talde lanak egiteko erreserbatu daiteke. <https://labur.eus/erabilera-anitzeko-gela> helbidean ikusi daiteke gela noiz dagoen libre eta noiz ez.

Ordutegi librea du, norbere beharren arabera moldatzeko aukerarekin

Erabilera gauzatu behar ez bada, abisua pasa beharko da erreserba bertan behera utzi eta gela beste erabiltzaileentzat irekitzeko

Erreserba ordua pasa eta 20 minutura inor azaldu ez bada erreserba bertan behera geratuko da automatikoki beste erabiltzaile batzuk erabili ahal izango dutelarik gela. Erreserba eskaera egin duten taldekideek ezingo dute beste hilabetean erreserbarik egin

Erabilera arauak

- Liburutegiaren irekiera orduetan, talde lanetarako liburutegiaren erabilera hobetzuko da. Erabilera anitzeko gela erabiltzeko balizko arrazoi bat aurkeztu beharko da
- 16 urtetik gorako herritarrek erabili dezakete
- Liburutegiko irekiera ordutegitik kanpo gela erabili ahal izateko eskaera orria bete eta udaletxean edo liburutegian aurkeztu behar da
 - Baimen eskaera
 - Eskaeran data eta ordutegia zehaztu beharko dira
 - Taldekide denen datuak adierazi beharko dira eta zerrendatutako pertsonak soilik erabili ahal izango dute gunea
 - Taldekide bat erantzule eta arduradun gisa identifikatu beharko da
 - Udalak bere gain du erabilera eskaerak onartu edo ukatzeko eskumena
 - Erabilera baimenaren onarpenarekin batera beheko gordailutik giltza eskuratzeko klabea emango zaio soilik arduradun gisa identifikatu den norbanakoari
 - Erabilera onarpena konkretuki zehaztutako data eta ordurako da
 - Beheko atea giltzaz istea gomendatzen da
 - Giltza eskuratzeko klabea ezin da beste inorekin partekatu
- Mugikorrarekin hitz egiteko kanpora irten behar da
- Ezin da erre, ez jan. Alkoholdun edaririk ere ezin da edan
- Gela aurkitu den bezala utzi beharko da irteterakoan
- Gunea eta ingurukuak errespetatu behar dira
- Erabilera gauzatzeko arauok onartzen direla baieztatzeko inprimakia sinatu beharko da

BILERA/INFORMAZIO SAIOETARAKO GELA

Gela beste erabileraren baterako erreserbatuta ez dagoenean bilerak edota informazio saioak egiteko erreserbatu daiteke. <https://labur.eus/erabilera-anitzeko-gela> helbidean ikusi daiteke gela noiz dagoen libre eta noiz ez.

Ordutegi librea du, norbere beharren arabera moldatzeko aukerarekin

Erabilera gauzatu behar ez bada, abisua pasa beharko da erreserba bertan behera utzi eta beste erabiltzaileentzat irekitzeko

Erreserba ordua pasa eta 20 minutura inor azaldu ez bada erreserba bertan behera geratuko da automatikoki beste erabiltzaile batzuk erabili ahal izango dutelarik gela. Erreserba eskaera egin duen pertsonak ezingo du hilabetean beste eskaerarik egin

Bertan dauden mahaiak elkartzu, 18-20 lagunendako mahai ingurua osatu daiteke. Mahaiak kontuan izan gabe bertan bildutakoen kopurua altuagoa izan daiteke (adb. hitzaldi baterako)

Erabilera arauak

- 18 urtetik gorako norbanakoek egin dezakete eskaera
- Gela erabiltzeko eskaera orria bete eta udaletxean edo liburutegian aurkeztu behar da
 - Baimen eskaera
 - Eskaeran data eta ordutegia zehaztu beharko dira
 - Eskaera egiten duen norbanakoa izango da erantzulea eta arduraduna
 - Gela zertarako erabiliko den zehaztu behar da
 - Udalak bere gain du erabilera eskaerak onartu edo ukatzeko eskumena
 - Liburutegiaren irekiera orduetan, bertan eskatu daiteke gela ireki eta ixteko
 - Liburutegiaren irekiera orduetatik kanpo gela erabili ahal izateko, erabilera baimenaren onarpenarekin batera, beheko gordailutik giltza eskuratzeko klabea emango zaio arduradun gisa identifikatu den norbanakoari
 - Erabilera onarpena konkretuki zehaztutako datarako, ordurako eta helbururako da
 - Giltza eskuratzeko klabea ezin da beste inorekin partekatu
- Mugikorrarekin hitz egiteko kanpora irten behar da
- Ezin da erre, ez jan. Alkoholdun edaririk ere ezin da edan
- Gela aurkitu den bezala utzi beharko da irteterakoan
- Gunea eta ingurukuak errespetatu behar dira
- Erabilera gauzatzeko arauok onartzen direla baieztatzeko inprimakia sinatu beharko da

KZGUNEA

Liburutegiko irekiera ordutegian, gela beste erabileraren baterako erreserbatuta ez badago KzGuneako ordenagailuak erabiltzeko aukera dago. <https://labur.eus/erabilera-anitzeko-gela> helbidean ikusi daiteke gela noiz dagoen libre eta noiz ez.

Erabilera arauak

- KzGuneako ordenagailuak erabili ahal izateko, KzGunean erabiltzaile izan behar da, nork bere erabiltzailea eta pasahitza dituelarik. KzGuneako arduradunekin gestionatu behar da izen-ematea.
- Mugikorrarekin hitz egiteko kanpora irten behar da
- Ezin da erre, ez jan. Alkoholdun edaririk ere ezin da edan
- Gela aurkitu den bezala utzi behar da irteterakoan
- Gunea eta ingurukuak errespetatu behar dira



Erreserbak kontsultatzeko egutegia bistartzeko lotura